



Ak1-2005

1/2005 PLENOKO AGIRIA

2004ko Urtarrilaren 27an burututako Ohizko Udal Plenoaren agiria

Aizarnazabalen, bi mila eta bost garreneko Urtarrilaren hogeita zazpian, gaueko bederatziak zirenean, bildu ziren Udaletxeko Areto Nagusian, ondoren idazten diren Jaun-Andreak, Udal Ohizko Plenoa egiteko asmoarekin, Begoña Gorrichategui Osa Idazkariaren laguntzarekin.

Bertaratu ziren Jaun-Andreak:

Alkatea: JOSE FRANCISCO LARRARTE AGIRRE.

Zinegotziak:

M^a CARMEN ARRIETA BARRENA.

JOSE ANGEL OÑEDERRA OLAIZOLA.

ASIER ALKORTA ARRUTI.

AROA ARTOLA SALABERRIA.

OLATZ AGIRRE ZUBIZARRETA.

ASIER SEGUROLA MANTEROLA.

GAI ORDENA

1. Azkenengo burutu zen Udal Plenoaren Agiriaren zirriborroa onartzea hala badagokio.
2. Ordainketa eta kontuak.
3. Obra baimenak
4. Alkatearen Dekretoak
5. Eskola garraiorako baimena.
6. Gurbegi Srekin konbenioa sinatzea eta Alkatea ahalmentzea.
7. Udal bide publikoen lurzoruan, zorupean edo hegalduran erabilera pribatiboak edo aprobetxamendu berezia egiteagatiko tasaren aldaketa.
8. Otsailaren 20ko hauteskundeetarako Mahai kideak izendatzea.
9. Ibi iraunkorreko baimena eta 2005eko likidazioak.
10. Zubialde Auzoan berrikuntzak.

1.- AZKENENGO BURUTU ZEN UDAL PLENOAREN AGIRIAREN ZIRIBORROA ONARTZEA HALA BADAGOKIO.

Alkateak Udal Plenoa zabaldu ondoren 2004ko Abenduaren 17an burutu zen Udal Plenoak Agiriaren zirriborroa onartzeko oztoporik zegoen galdetu ondoren ahobatez onetsi zen.

2. ORDAINKETA ETA KONTUAK

IZENA	Fak. Zenb.	KONTZEPTOA	EUROAK
Urola Erdiko Zerb. Mank	762	2005eko 1º hiruhilabetea	6.355,81
Urola Erdiko Zerb. Mank	755	Boluminosoen bilketa	529,65
Limpiezas Ind. Alfus SA	8144	Estolderiaren garbiketa.	1.317
Asun Iturralde	2004	Iraetara bidaiak.	264
Luis Etxeberria	2004	Iraetara bidaiak.	352
Paskin	5	Kaleetako pintaketak	2.001,69
Agerre Inst. SL	5	Gabonetako argiak	1.679,68
Gipuzkoako Urak, SA	05	Azpiegitura kanona	9.384,51
Patxi Gastaminza	04/9	2004ko aholkularitza teknikoa	6.060
KIRO ELKARTEA	2004	Kirola Euskara astea	3.000
ENTREWEBS, SL	Aurrekontua	2005ean Web orriaren mantenimentua.	6.000 + BEZ

3.- OBRA BAIMENAK

- **Espediente zenbakia: 15/2004.** Eskatzailea: INSEVA, SL. Obra: Fruita ustiatagirako biltegia eraikitzea. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga: 2.042,91 € Udaleko Arkitektoak bere txostenean ezarritako baldintzak bete beharko ditu.
- **Espediente zenbakia: 1/2005.** Eskatzailea: Julian Larrañaga Oñederra eta Julian Lasa Landa. Obra: Amilibia baserriaren inguruan, exkabazioa egitea gero etxebizitza egin ahal izateko. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga: 65,62 Udaleko Arkitektoak bere txostenean ezarritako baldintzak bete beharko ditu.
- **Espediente zenbakia: 2/2005.** Eskatzailea: Iratxe Igoa Monje. Obra: Bhekoetxezaharra baserriaren inguruan eguzki plakak. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga: 33,25 Udaleko Arkitektoak bere txostenean ezarritako baldintzak bete beharko ditu.

4.- ALKATEAREN DEKRETOAK

Gaiordenarekin jarraituz, ondorengo Alkate Dekretoen berri eman zen: 2005eko Urtarrilaren 3ko 1/2005 zenbakidun Alkatetza Dekretuaren bidez, honako ebazpen hau eman du Alkateak:

1/2005 ALKATETZA DEKRETUA

REPSOLI TASA ORDAINTZEKO ERREKERIMENDUA

Udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen ordenantzak agindutakoarekin bat REPSOL-BUTANO,S.A. enpresak, gas hornidura zerbitzuaren sustatzaile den horretan, Aizarnazabalgo udalerriri gas hornitzeagatik fakturatutako sarrera gordinen ehuneko bat eta erdia ordaindu behar dio Aizarnazabalgo Udalari.

Indarrean dagoen legeriak ematen dizkidan eskurantzak erabiliz
ERABAKITZEN DUT:

LEHENENGOA.- REPSOL BUTANO,S.A. enpresari 2004. urteari dagokion udal jabari publikoa diren lurretan jarri diren gasa garraiatzeko hodiak direla eta, ERABILERA PRIVATIBO EDO APROBETXAMENDU BEREZIAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ordaindu dezala errekeritzea.

BIGARRENA.- Hemendik aurrera, aldeztatik eskatu gabe, dagokion kopurua automatikoki fakturatzen den urtearen ondorengo urtarrilaren 31 a baino lehen ordaindu beharko du REPSOL-BUTANO, S.A.-k.

2005eko Urtarrilaren 3ko 2/2005 zenbakidun Alkatetza Dekretuaren bidez, honako ebazpen hau eman du Alkateak:

2/2005 ALKATETZA DEKRETUA

IBERDROLARI TASA ORDAINTZEKO ERREKERIMENDUA

Udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen ordenantzak agindutakoarekin bat IBERDROLA,S.A. enpresak, gas hornidura zerbitzuaren sustatzaile den horretan, Aizarnazabalgo udalerriri elektrizitatea hornitzeagatik fakturatutako sarrera gordinen ehuneko bat eta erdia ordaindu behar dio Aizarnazabalgo Udalari.

Indarrean dagoen legeriak ematen dizkidan eskurantzak erabiliz
ERABAKITZEN DUT:

LEHENENGOA.- IBERDROLA,S.A. enpresari 2004. urteari dagokion udal jabari publikoa diren lurretan jarri diren elektrizitatea garraiatzeko hodiak direla eta, ERABILERA PRIVATIBO EDO APROBETXAMENDU BEREZIAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ordaindu dezala errekeritzea.

BIGARRENA.- Hemendik aurrera, aldeztatik eskatu gabe, dagokion kopurua automatikoki fakturatzen den urtearen ondorengo urtarrilaren 31 a baino lehen ordaindu beharko du IBERDROLA, S.A.-k.

3-2005 ALKATE DEKRETUA

Toki-Jaurpidearen oinarritzko 7/85. Aginte-mende-Legeko 21-1-j) eta Hirigintzako Gestioaren Erreglamenduko 174.3 artikuluetan ezarritakoaren arabera, zera

DEKRETATZEN DUT

Lehena: 2004ko urrian, Gurbegi SLk sustatu eta Susana Ruiz Arkitektoak eta Jose A. Larrañaga Industria Ingeniariak idatzitako “Aizarnazabal Udalerriaren Planeamenduko Arau Subsidiarioen A.I.U.2 Areaaren (2.1. Eikaritzapen-unitatea) Konpentsazio proiektua behin betiko onartzea».

Bigarrena: Ebazpen honen berri jabeari ematea.

Aizarnazabal, 2005eko Urtarrilak 10.

4-2005 ALKATE DEKRETUA

Toki-Jaurpidearen oinarritzko 7/85. Aginte-mende-Legeko 21-1-j) eta Hirigintzako Gestioaren Erreglamenduko 174.3 artikuluetan ezarritakoaren arabera, zera

DEKRETATZEN DUT

Lehena: Behin betiko onespina ematea, Aizarnazabalgo A.I.U.2 gunearen urbanizazio proiektuari, Iñigo Marín Landa Bide, Kanal eta Portuetako Injenieroak idatzitakoa eta Euskal Herriko Bide, Kanal eta Portuetako Kolegio Ofizialak 2004ko Azaroaren 23an bisatutakoa. Dokumentazio osagarria, 2005eko urtarrilekoa. Promotorea: Gurbegi, S.L., jendeaurrean erakusgai egon den epean, ez delako inolako erreklamaziorik aurkeztu.

Bigarrena: Ebazpen honen berri jabeari ematea.

Aizarnazabal, 2005eko Urtarrilak 27.

5.- ESKOLA GARRAIORAKO BAIMENA.

Gaiordenarekin jarraituz, Autocares Aldalur Anaiak Sri, Aizarnazabalgo Basakaitz Herri Ikastetxeko Eusko Jaurlaritzak esleitu dion 002-11 ibilbidea 2004-2005 ikasturtean egiteko dagokion baimena ematea.

6.- GURBEGI SLREKIN KONBENIOA SINATZEA ETA ALKATEA AHALMENTZEA.

Ondoren, Gurbegi S.L.rekin ondoren adirazten den konbenioa sinatzea erabaki zen eta Alkatea den Jose F. Larrarte Agirre Jauna ahalmentzea Udalaren izenean sinatu dezan.

AURREKINEKINAK

LEHENA:

GURBEGI, SL enpresak, Aizarnazabalgo Udalari 2004ko urrian eskatu zion, Aizarnazabalgo Herri Planeamenduko Arau Subsidiarioen (2.1 Exekuzio Unitatea), A.I.U.2 Arearen xehetasun azterlana, eta geroago, enpresa berberak, konpentsazio projektoaren tramitazio administratiboa eta onarpena eskatu zituen, eta baita ere, aipatutako Gunearen Urbanizazio projektoa ere.

BIGARRENA:

Gipuzkoako Foru Diputazioko Diputatuen Kontseiluak, 2003ko ekainaren 3an erabaki zuen, Aizarnazabalgo Herri Planeamenduko Arau Subsidiarioen errebisioko Testu Bateratua onartzea, ondoren bere osotasunean argitaratu zen, 2003ko abuztuaren 19ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta hauen arabera, GURBEGI, Slren jabegoa diren lurren klasifikazioa, hiri sorua da, (A.I.U.2 Exekuzio unitatea 2.1) 10.2.1/1 partzela (Partzela residentziala promozio publikoaz egiteko zabaldua), 1.487 metro karratuko azalerarekin.

HIRUGARRENA:

GURBEGI, SL interesatua dago, gune honen gestioaz eta exekuzioaz, babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko.

LAUGARRENA:

Halabera, Gorporazioak beharrezkoa kontsideratzen du, herritarren bizi baldintzak eta nivel ona garantizatzeko asmoz, ahal den eta babes ofizialeko etxe bizitza gehiena lortzea, beraz, konbenio honek, ondorengoak gauzatu nahi ditu

ESTIPULAZIOAK

LEHENA:

Aizarnazabalgo Udala, 2003ko ekainaren 3an onetsi ziren herri Planeamentuko Arau Subsidiarioen arabera, konbenio honen hirugarren aurrekinean aipatzen den babes Ofizialeko Etxe bizitzak eraikitzeko herri baimena ematera.

BIGARRENA:

GURBEGI, SL, Konbenio honen bidez behartzen da babes ofizialeko etxe bizitzak adjudikatzerara, Aizarnazabalgo Udalak eta Eusko Jaurlaritzako Bizitza eta Gizarte Gaietako Departamentuak eskatzen dituen baldintzak betetzen ditueni.

HIRUGARRENA:

Aizarnazabalgo Udalak, 2005eko urtarrilaren 27an burutu zuen Udal Plenoan erabakitakoaren arabera, etxe bizitza hauetako adjudikatarioen sortean sartzeko, ondorengo baldintzak bete beharko direla:

? (ETXEBIDE) Eusko Jaurlaritzako Bizitza eta Gizarte Gaietarako Sailak duen Etxebizitza Euskal Zerbitzuko erregistroko eskatzaileak izan behar dute eta babes ofizialeko etxebizitzak erosi ahal izateko baldintzak bete beharko dituzte.

? Aizarnazabalen azkenengo bost urtetan erroldaturik egotea, promozio honen behingo kalifikazioko datan.

LAUGARRENA:

Gurbegi, SAK babes ofizialeko etxe bizitzak A.I.U.2 gunean eraiki behar dituen beste etxe bizitzekin batera hastera konprometitzen da.

BOSTGARRENA:

Konbenio hau eskritura publikora jaso ahal izango da, aldeetako batek hala nahiko balu, eta horretarako beste aldeari eskatu besterik ez du. Eskritura publikoa egiteko gastuak, hauek egiteko eskatu duen aldearen kontura izango dira.

7.- UDAL BIDE PUBLIKOEN LURZORUAN, ZORUPEAN EDO HEGALDURAN ERABILERA PRIBATIBOAK EDO APROBETXAMENDU BEREZIA EGITEAGATIKO TASAREN ALDAKETA.

Gaiordenarekin jarraituz, ondorengo Ordenantza onetsi zen:

Hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek udalerriko bide publikoetako lurzoruaren, zorupearen edo lurgainaren bakarreko erabileragatik edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen udal ordenantza fiskala.

I. Xedapen orokorrak

1. artikulua.

1. Udal honek, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorrituz, hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresei tasak ezartzen eta ordainarazten dizkie udalerriko bideetako lurzoruaren, zorupearen eta lurgainaren bakarreko erabileragatik edo aprobetxamendu bereziagatik.

2. Ondore horietarako, hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresatzat honako hauek joko dira:

a) Energia elektrokoaren, uraren edo gasaren hornikuntzan diharduten enpresak.

b) Herritar guztientzat telekomunikazio zerbitzuak egiten dituzten enpresak, baldin eta osorik edo zati batez erabiltzen badituzte udalerriko bide publikoetako lurzoruaren, zorupearen edo lurgainaren bakarreko erabilera edo aprobetxamendu berezia eginez instalatutako telekomunikazio sare publikoak, sareen edo instalazioen titularrak edozein dela ere.

c) Hornidura zerbitzuak egiten dituen edozein enpresa, baldin eta zerbitzuak egiteko erabiltzen dituen tutueria, hari eta gainerako instalazioek udalerriko lurzoruaren, lurgaina edo zorupea atzematen badute.

3. Artikulu honetan ezarritakoaren ondoreetarako, zerbitzuak banatzen eta merkaturatzen dituzten enpresak ere zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen multzoan sartuko dira.

2. artikulua.

Ordenantza hau udal mugarte osoan aplikatuko da.

II. Zerga egitatea

3. artikulua.

1. Zerga egitatea honakoa da: hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek udalerriko bide publikoetako lurzoruaren, zorupearen edo lurgainaren bakarreko erabilera edo aprobetxamendu berezia egitea, zerbitzuok interes orokorrekoak badira, edo eragina badute udalerriko biztanle guztiengan edo gehienengan.

2. Tasaren zenbatekoa ezartzeko araubide hau aurreko artikuluan aipatutako enpresa guztiei aplikatuko zaie, bai zerbitzuak egiteko erabiltzen dituzten sareen titular direnei, bai sareen titular ez izan arren sareak erabiltzeko, sareetan sartzeko edo haiekin konektatzeko eskubideen titular direnei.

3. Sakelako telefonoen zerbitzuak ez dira sartuko tasaren zenbatekoa ezartzeko araubide berezi honetan.

4. Tasa hau bateragarria da udal eskumeneko zerbitzuak edo jarduerak egiteagatik ezar litezkeen beste tasa batzuekin, hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresak haien subjektu pasibo izan behar direnean 5/89 Foru Arauaren 23.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera. Tasa hau ordaintzen duenak ez du edukiko udalerriko bide publikoetako lurzoruaren, zorupearen edo lurgainaren bakarreko erabileragatik edo aprobetxamendu bereziagatik ezarritako gainerako tasak ordaindu beharrik.

III. Subjektu pasiboa

4. artikulua.

1. Subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 33. artikuluan aipatutako pertsona fisiko eta juridikoak eta erakundeak, hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen titularrak izanez gero, baldin eta zerbitzuok interes orokorrekoak izan edo udalerriko biztanle guztiengan edo gehienengan eragina badute, eta haiek egiteko udalerriko bide publikoetako lurzoruaren, zorupearen edo lurgainaren bakarreko erabilera edo aprobetxamendu berezia egiten bada.

2. Artikulu honetan ezarritakoaren ondoretarako, zerbitzuak banatzen eta merkaturatzen dituzten enpresak ere zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen multzoan sartuko dira.

IV. Salbuespenak, murrizketak eta hobariak

5. artikulua.

Salbuespenak, eta bestelako onura fiskalak, aplikatu beharreko xedapen orokorretan ezarritakoaren arabera emango dira.

V. Zerga oinarria

6. artikulua.

1. Tasaren zerga oinarria kalkulatzeko, hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek udal mugartean urtean egiten duten fakturaziotik ateratako sarrera gordinak hartuko dira kontuan.

2. Sarrera gordinak izango dira enpresari egotzi ahal zaizkionak, udalerrian egindako zerbitzuen ordainez lortutakoak badira.

3. Ez dira sarrera gordintzat joko zerbitzuen gaineko zeharkako zergak, ez da gainontzekoen kontura kobratutako partidak edo kopuruak ere, hornidura zerbitzua ustiatzen dituen enpresaren beraren sarrerak ez badira.

Halaber, ez dira sartuko fakturazioko sarrera gordinetan Ekonomia Ministerioaren Elektraenergia Ekoizteko Instalazioen Administrazio Erregistroko 1. edo 2. atalean inskribatutako instalazioetan araubide berezi honen arabeko zerga-ordainketari lotuta dagoen energia sortzeko erabiliko den lehengai hornitzeagatik jasotzen diren kopuruak.

4.Zerbitzuak egiteko besteren sareak erabiltzen dituzten enpresek euren fakturazioaren sarrera gordinetatik kenduko dituzte beste enpresa batzuei beraien sareekin konektatzeagatik edo haietan sartzeagatik ordaindutako kopuruak. Halako sareen titular diren enpresek horregatik jasotako kopuruak fakturazioaren sarrera gordin gisa konputatu behar dituzte.

5.Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 111. artikuluan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Ikuskapenari buruzko Araudiaren 37. artikuluan ezarritakoari jarraituz, sareen titular diren enpresek Udalari informazioa eman beharko diote, hark eskatuz gero, sareetan sartzeagatik edo haiekin konektatzeagatik ordaintzen dieten enpresei buruz.

VI.Kuota

7. artikulua.

1.Zerga kuota % 1,5 izango da, eta udal mugartean urtean egindako fakturaziotik datozen sarrera gordinetik aplikatuko zaie.

2.Aprobetxamendu bereziak udalerriko jabari publikoko ondasunak suntsitzea edo narriatzea badakar berekin, onuradunak haiek berreraikitze edo konpontzeko gastu osoa ordaindu beharko du eta zenbatekoa lanei ekin aurretik jarri beharko du; horrez gainera tasa ordaindu beharko du.

Kalteak konponezinak badira, Udalak kalte-ordaina jasoko du. Kalte-ordainaren zenbatekoa suntsitutako ondasunen balioa edo narriaturari dagokiona izango da.

Udalak ezin ditu barkatu idatz-zati honetan adierazitako kalte-ordainak eta itzulketak, ez osorik, ez zati bat.

VII.Sortzapena eta zergaldia

8. artikulua.

1.Hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek udalerriko bide publikoetako lurzorua, zorupearen edo lurgainaren bakarreko erabileragatik edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasa aprobetxamendu berezia hasten denean sortuko da lehenengoz, eta geroztik urtero sortuko da, urtarilaren lean.

2.Subjektu pasiboari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik jabaritzaren publikoaren aprobetxamendua ezin baliatu edo garatu bada, tasaren zenbatekoa itzuli egingo da.

VIII.Likidazioa eta sarrera

9. artikulua.

Udalak likidazioa egingo du, eta likidatutako zenbatekoaren sarrera egingo da.

IX. Tasen kudeaketa

10. artikulua.

Hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek, hiru hilean behin, egutegiko hiruhilekoaren lehen hamabostaldian, aurreko hiruhilekoan izandako sarrera gordinen aitortpena aurkeztu beharko diote Udalari. Aitorpen horrekin batera, udalerrian eginiko fakturazioa egiaztateko agiriak aurkeztuko dituzte, eta Udal Administrazioak eskatzen dizkien gainerako agiriak.

11. artikulua.

1. Udal Administrazioak hiru hilean behingo likidazioak egingo ditu. Behar diren egiaztapenak egin arte likidazioak behin-behinekoak izango dira. Egiaztapenak amaituta, behin betiko likidazioa egingo da eta interesatuari jakinaraziko zaio. Borondatezko epean ordaindu ezik, zorra premiamendu bidez ordainaraziko da.

2. Behin-behineko likidazioa, nolana ere, behin betikoa bihurtuko da aurreko artikuluan aipatutako aitortpena aurkezten den egunetik hiru urte igarotakoan.

3. Udalaren eta hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen artean hitzarmen edo akordioaren bat badago, artikulua honetan eta aurrekoan kudeaketari buruz ezarritako arauak ordeztuko izango dira.

12. artikulua.

Zergen arloko arau-hausteak, haien sailkapena eta dagozkien zehapenak direla eta, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta Ordenantza Fiskal Orokorrean xedatutakoa beteko da.

X. Azken xedapena

Hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek udalerriko bide publikoetako lurzorua, zorupearen eta lurgainaren bakarreko erabileragatik edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen udal ordenantza fiskala behin-behinean onesten da, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta erreklamaziorik aurkezteko epean ez balitz aurkeztuko behin betiko onespena jasoko du, 2005ean jarriko da indarrean eta horrela iraungo du harik eta bera aldatu edo indargabetzea erabakitzen den arte.

8.- OTSAILAREN 20KO HAUTESKUNDEETARAKO MAHAI KIDEAK IZENDATZEA.

Hauteskunde Erregimen Orokorren Ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 26. Artikulua araberan, ondorengo Kideek izendatu ziren, Otsailaren 20an burutuko diren Hauteskundeetako Mahairako.

LEHENDAKARIA: ELISABET ALZURI MUGICA.
 1º BOKALA: XABIER GONZALEZ TAPIA.
 2º BOKALA: ROQUE CALPARSORO AIZPITARTE.

LEHENDAKARIAREN 1º ORDEZKOA: IGOR ALCORTA GOMEZ.
 LEHENDAKARIAREN 2º ORDEZKOA: JUAN JOSE BERGARA ECHAVE.
 1º BOKALAREN 1º ORDEZKOA: Mª ISABEL SEGUROLA MARTIJA.
 1º BOKALAREN 2º ORDEZKOA: Mª CARMEN SANTAMARIA CORTA.
 2º BOKALAREN 1º ORDEZKOA: MIRARI BERISTAIN IBARGUREN.
 2º BOKALAREN 2º ORDEZKOA: JUAN-JOSE ECHEVERRIA ZULAICA.

9.- IBI IRAUNKORREKO BAIMENA ETA 2005EKO LIKIDAZIOAK.

Aizarnazabalen indarrean dagoen “Bide publikoan ibilgailuak espaloietatik finken barrukaldera sartzeko eta aparkalekuak gordetzeko ordenantza fiskalaren arabera”, 2005ean ondorengo tasak likidatzea erabaki zen:

1. Etxabe okindegia	110 €
2. Juan Carlos Irizar	12 €
3. Nicolas Alba	110 €
4. Baltasar Etxabe 2-4 komunitatea	72 €

10.- ZUBIALDE AUZOAN BERRIKUNTZAK.

Gaiordenarekin jarraituz, Zubialdeko auzo eta bertan dagoen parkeari buruz, ondorengo gaiak erabaki ziren:

1. OBE HETTICH, S.L. en Com. eko Izaskun Alberdik bidalitako idatzia irakurri zen, bertan eskatzen da Udalarena den parkearen eskina batean, Obe parean aparkalekuak egiteko baimena ematea. Obrak Oberen kontura izango lirake eta aparkamentua publiko geratuko litzateke. Gaia eztabaidatu ondoren, baimenik ez ematea erabakitzen da, parkearen egoera ikusi eta zuhaitzekin zer egin erabaki arte, kontutan izanik Obek bere lurraren barnean planteatu beharko lituzkela aparkamentuak.
2. Zubialdeko parkean dauden aulki, mahai eta ume jolaseri buruz, nahiko egoera onean aurkitzen direla eta pintatzea erabaki zen.
3. Zubialde auzoan zenbait gunetan argi gutxi dagoela eta lau farola berri jartzea erabaki zen.

GAIORDENETIK KANPO.

Errejimen Lokaleko Oinarriak erregulatzeko dituen Apirilaren 2ko 7/1985 47.artikulua eta Errejimen Lokalaren alorrean indarrean dauden lege xedapenen testu Bateratuak onartzen duen Apirilaren 18ko 1986/781 Errege Dekretu Legegilearen 51.artikuluaren eta Erakunde Lokaletako Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Erregimenerako Erregelamenduko 83.artikuluak xedatzen duetenaren arabera, ondoren idazten diren gaiak prezazkoak zirela erabaki zen ahobatez:

SEGREGAZIO BAIMENA.

- Espediente zenbakia: 4/2005.

Jose Zabala Arruabarrena Jaunak, Bizabi Zarautz Etxebizitzak Slren izenan, Aizarnazabalgo Etxezarreta Industrialdeako (SI1)eko I Partzelaren jabea da, bertan 2.714,65 metro karratu ditu, eta eskatzen du segregazio baimena, partzela honetatik 49,65 metro karratu banatzeko, gaia aztertu ondoren, zera erabakitzen da:

1. Jose Zabala Arruabarrena Jaunari, baimena ematea, SI1 Etxezarreta Industrialdeko I partzelarik, 49,65 metro karratu segregatzeko.
2. Segregatzen diren 49,65 metro karratu, alboko J Partzelan agrupatu beharko dira baimen honek indarra izateko.

Eta beste gairik ez zegoela ikusi ondoren, Udal Pleno hau gaueko hamaika eta erdietan amaitu zen eta Idazkaria naizenez ziurtatzen dut Alkatearen On Eritziarekin.

O.E.
ALKATEA,

IDAZKARIA,